

## **AINARAK BEZALA ...**

Mikela Atxoarena

*Arrosa*

Herriko azken etxeari bizkar eman-eta, aitzinean mendia zuen Ainarak. Herri aldera, agur errateko bezala, azken behako bat bota zuen eta igotzen hasi zen borondate handiarekin.

Eguzkiak Ainara gogorki jotzen zuen eta berak, bere baitan, zigortzat hartzen zuen: neskatoak barkaezina zen huts hura egina zuen eta bide berri bat hartu nahi zuen. Azaroko egun haietan sargori zegoen eta igotzen ari zen bitartean eguzkiari begiraten hasi zen. Ttipitan, Ainara uros bizi zen, eta haren ametsa zen udazken batez Karlos, ama eta Iñaki ainarekin batera, Afrikara buruz hegaldatzea; neskatoak mundu eguzkitsu batean bizi nahi zuen, negua haren amets gaiztoa baitzen. Oroitzapenak utzi eta bideko gauzei eman zien arreta: bidegurutze batera heldu baitzen eta bidez ez zelako tronpatu behar. Bidegurutzea iragan orduko, txori bat entzun zuen kantuz, eta Ainara, usu gertatzen zitzaion bezala, amari pentsatzen hasi zen. Ama! Zer pertsona sano eta goxoa! Geroago ere, lokartu aitzin, beti heldu zitzaion

haren ahotsa, ttipitan ganbarara sartu eta kantatzen hasten baitzitzaion:

*“Haurtxo ttipia sehaskan dago  
Zait iduri aingerua lo  
Ene maitea, ene pottolo,  
Eginaguzu lo!  
Xakur handia etorriko da  
Zuk ez baduzu egiten lo  
Horregatikan, ene pottolo  
Eginaguzu lo!”*

Kantari paregabea zen ama. Egun eguzkitsuetan kantatzen hasten zelarik, txoriak eta natura guzia isiltzen zirela oroitzen zen, ahots gozo hura hobeki entzun nahian-edo. Haur ttipia eskolara joaten hasi zenetik, eguna bukatzean, autobusarekin etxeratzen zenean, bixkotx gozoak atzematen zituen eta amak zati eder bat ematen zion. Ama gogoan zuela, neskatxa Karlosi pentsatzen hasi zen. Karlos, sekula “aita” deitu ez zuen pertsona zen; nehork ez zekien zergatik, metro bateko haurra zelarik ere, Ainarak Karlos deitzen zuen. Bere sorrarazteko espermatozoidea eman zuen gizon hura ez zen askotan etxean; Ainararen iduriko lana, lana eta lana zeukan bakarrik buruan, enpresa izugarri baten buru zen, “bere bigarren familia”, pentsatzen zuen haurrak. Baina ttipitatik egiten zituen bidaiak haiek guztiak gizon ari esker egiten zituela konturatzen ote zen?

Pausoa bizkortzen hasi zen, tontorrera helduko zelarik, gaua etorriko baitzen bestela. Malda baten ondotik, oihan batera sartu zen. Arbola bakoitzaz oroitzen zen, gau batez Iñakirekin etorri baitzen, honek urtebetetzean izan zuen jostatzeko robota arratsaldean egin ibilaldian han galdu baitzuen. Jostailuaren xerkatzera etorri zirenean, basoa ilunpetan zegoen; gaztainondo zahar eta handiek Iñakiri beldur ematen zioten, beso erraldoiekin haien harrapatzeko prest izanzen balira bezala, eta Ainarari azkarki heltzen zion. Azkenean, hosto bartzuen azpian atzeman zuten robot ttipia. Iñakirekin komunean zuen puntu bakarra burasokak ziren; horretaz aparte, lau urte gazteago zen mutilak ez baitzuen eite handirik arrebarekin: gaua eta eguna ziren, erraldoia eta ñañoa. Batak txoriak eta natura zituen gustuko, besteak jostailuak; biziki hertsia zen bata, irekia bestea, bata esku zabala zen, bestea berekoia, aitaren eitea zuen bata, amarena besteak. Baina zazpi urte lehenago gertatu zenaz geroztik, konplizitate handia sortu zen Ainara eta anaiaren artean, arrebak anaiarekin maitasunezko sentimendu handiak zituen, ama batek bere haurrarekiko dituenaren antzekoak.

Ainararen oinen azpian hostoak kraskatzen ziren, musika egin nahiz bezala, baina giroa ez zen festarako; igo arau, bere ergelkeria, bere bizia berriz egin nahia heldu zitzaizkion gogora, eta bideko bihurgune bakoitzean egin zituen huts guziez oroitzen zen. Oihaneko hostoen itzaletik irten zelarik, mitxoletaz betea zen pentze batekin

topo egin zuen eta dena ulertzen hasi zen egun hartaz oroitu zen... Arratsalde hura, udaberriko lehen eguna zen; ohi ez bezala, ama eskolara etorri zitzaion bila neskato alaiari. Etxera heltzean, amak, borta aurrean, lore ederrak aurkitu zituen, mitxoletak, eta haiei lotua zen hitz tipia irri polit batekin irakurtzen hasi zen. Ainara urte horretan ari zen irakurtzen ikasten eta amak sukaldeko objektu guzien gainean idatzia zena asmarazten zion, joko jostagarri batzuen bidez; Ainarak galdegin zion:

–Ama, irakurtzen ahal dut?

–Ez, nik irakurriko dizut: Udaberria hasten baita..., eeee... Karlos.”

Momentuan ez zuen deus susmatu... Baina aita etxeratu zelarik, loreak ederrak zirela esan zion amari; honek herriko lore dendan erosi zituela ihardetsi eta Ainarari deus ez erraiteko keinu bat egin zion segidan.

Bere pentsaketetan moztua izan zen. Ainarak eguzki eta berotasunarengatik buruko min azkarra sentitu zuen, eta kasketa buru gainean ezarri zuen, beraz. Neska buruko minik nehoiz ez zuela izan ohartu zen... Zer zozoa zen, beste aldi batez ere izan zuela oroitu zen, gau hura ahantz ezina baitzen berarentzat!

Egun hura aitzin, bizpahiru aldiz, neskatilak bixkotxa zatia mahai gainean atzeman zuen, amak beti ohar bera uzten ziola: “Tea edatera joan naiz Kattalinen etxera”. Eta gau batez, ama etxera ez zen oraino itzulia; aita, aldiz, lanetik etorria zen jada eta urduri zirudien. Gainera, Iñaki oheratzeko

tenorea iristen ari zen eta oraindik ez zuten afaldu. Azkenean, sartzeko atea ireki zuenean, emazteak senarraren arbuiozko begirada zorrotzei aurre egin behar izan zien. Lotarako tenorean, buruko min bortitz batek hartu zuen Ainara; ondorioz eskailerak jaitsi eta azpiko solairuan zegoen aita-amen ganbarako norabidea hartu zuen. Haren aitzinean zen eta eskua heldulekuan pausatua zuela, haren itzularazteko prest zegoela, sekula ahantziko ez zuen zerbait gertatu zen. Aita-amen kalapita entzun zuen:

–Zozotzat hartzen nauzu?, aitak

–Zer?...

–Zure sakelakoan “Erramun” horren mezuak irakurri ditut!, hasi zen kexatzen aita; ahotsaren doinua azkartzen hasi zen eta momentu horretan Ainarak begia ateko zuloxoaren parean ipini zuen.

–Ah! Erramun, ez dakit nor den, zenbakiz tronpatu dela pentsatzen dut, erantzun zuen amak lasaiki.

–Eta gaur norekin egon zara berandu arte?

–Kattalinen etxean nintzen, te baten edaten eta mintzatzen.

“Hondoratzen ari zara gero eta gehiago; Kattalin deitu dut galdeginez han zinenez eta ezetz erantzun dit, gezurti!”, oihukatu zuen Karlosek. Bere eskua igo zuen, ama bere besoekin babestu zen, usatua balitz bezala, eta gizonak bere indar guziarekin eskua jaitsi eta azkarki jo zuen emaztea. Etxe guzian entzun zen ukaldiaren oihartzuna. Ainara

lasterka ganbarara joan eta negarrez aritu zen, gertakariak asaldatuta. Horren ondotik, neskatala ohartu zen bere amak beti mahuka luzeak janzen zituela, eta burura galderak heldu zitzaizkion: ukaldien gordetzeko ote zen? Baina, ez zen ohartzen uspelen handitasunaz eta larritasunaz.

Gertakariaren ondotik neskatalaren bizitasuna itzaltzen hasi zen egunetik egunera, eta, etxekoaz trabatua, eskolako emaitzak txartzen hasi ziren.

Momentu horretan, mendiaren tontorra begiz jotzen zuen une berean, Ainara ohartu zen gertakaria gertatu zenez geroztik, arratsaldeetan, opari misterioitsu batzuk beti etortzen zirela: loreak, gozokiak, gutunak... Amak bere maitasun debekatuarekin segitzen zueneko frogak... Ainarak ama arriskuan zela bazekien eta dolu zuen deus ez egin izana.

Mendi horretara etortzen zen aldiro, maite zuen une batera heltzen zen, arroka handi bat eskalatu behar zuen momentua zen. Eskalatzea irriarekin egiten ohi zuen beti, baina, egun horretan, Ainarak irria ez zuen ezpainenetan, tristezia eta aladurak baizik. Biziki trebe eta kirolaria zen, eskuak arrokan pausatu zituen, indarrarekin gorputza goititu, zangoak pausatu eta tximino baten zalutasunarekin igaiten hasi zen. Zailtasunik gabe, arroka gainera heldu zen; Ainara ohartzen ote zen pausoz pauso hodeietara heltzen ari zela? Ondotik, bide hertsia go bat etorri zen eta honen bi aldeetan sasiak baziren, neskari pasatzera utzi nahi ez balio te bezala; gainera, Ainara galtza motzetan zegoen.

Baina neskak kuraia handia zeukan eta pasatu zen, zangoetan xixtak sentituz, baina hortzak tinkatuz. Pasaia zikina pasatua zuela, burua jaitsi eta hanke-tan, xixten urraduretan odol asko ikusi zuen; mokanes batekin garbitu zuen. Odola ikusten zuen aldiro, irudi bera bururatzen zitzaion Ainarari, eta poliki-poliki haren begietatik ur tantak erortzen hasten ziren. Saiatzen zen irudi hura urruntzera, baina ezinezkoa zen.

Arratsalde euritsu eta triste batez gertatu zen; autobusak, beti bezala, etxe aurrean utzi zuen Ainara, baina egun hura ez zen izan beti bezalako... Atea zabaldu zuenean, bixkotxa eta amaren betiko “Arratsalde on” goxoa falta zela konturatu zen. Etxeko giroa bitxia zen, eta anormala atzema-ten zuen amak hitzik ez utzi izatea. Deitzen hasi zen “Ama! Ama! Hor zaude?”. Erantzunik ez... Ainarari, momentu hori gogoratzean, begiak bus-titzen hasi zitzaizkion eta bere errua izan zela segur zen. Bi pauso aurrera egin zituen; arnasa hartzetik gelditu zen momento batez eta... oihu bat bota zuen, harrabotsa etxeko oihartzunetan hedatu zen. Lurrean, eskaileren azpian, amaren gorputz bizi-gabea atzeman zuen. Uspelez eta odolez betea zegoen eta eskaileretan likido gorria utzia zuen. Negarrez, orroaz hasi zen, amaren ondoan: bere bihotzaren parte bat falta zitzaion. Handik minutu luze batzuetara, Ainara bere onera etorri zelarik, lasterka, telefonoaren bila joan zen eta haren ondoan, aitaren laneko karpeta atzeman zuen. Jendarmeak etorri ziren, ama eskaileretatik erori

zela susmatu zuten eta berria herrira zabaldu. Karlosek, etxeratu zenean, triste, harrituarena egin zuen, eta Ainarari egun horretatik aurrera Iñakiz arduratu beharko zela azaldu zion. Maiz, herriko plazan, zaharren ahotik, emazte paregabe bati Jainkoak horrela bizia ateratzearekin huts handia egin zuela entzun zuen, baina Ainarak bazekien ez zela Jainkoaren krimena...

Malkoak xukatu zituen neska gazteak eta bere bidea segitu, begiak zolari loturik segitzen zuen aitzinatzen, igotzen. Halako batean, sentitu zuen malda bukatua zela eta zola laua zela; ondorioz begiak igo zituen eta ohartu zen mendiaren tontorrera heldua zela. Mendi horrek bazuen berazitasun bat: alde batean arroka eginga zen eta izugarritzko amildegia zuen. Ainara zulo horren aurrean egon zen eskuak zabalik, begiak hetsirik; goizean gertatutakoa gogoratzen hasi zen.

Beroak eta aire itogarri batek gela betea zutela konturatu zen Ainara, eguzkiak erridauak urreztatzen zituenean. Azaroko egun haietan sargori zen, baina egun horretan, neskak, barne-barnetik, zekien guzia aske uztea erabaki zuen, bere gorputza libratuko zuen eta aspalditik preso zegoen haize fresko bat aske uzteko xedea zuen. Zazpi urtez atxiki zuen gertakariaren egia, sakonenean zegoena, askotan zapartatzeko zorian, baina hondamendia gertatu aitzin gazteak lehegailua desaktibatu zuen. Orduan, dena kontatzeko momentua zela pentsatu zuen, eta ez zuen gibelera asmorik, tenorea etorri zen.



Sakelakoan, dena kontatzen zuen ahozko mezu bat grabatu zuen poliziei igortzeko, botoia zapalduko zuenez galdetzen zion bere buruari; gibelera joateko asmorik ez zuelako, hiru arte kontatu eta igortzeko tekla sakatu zuen. Sakon-sakonean preso zen haize bolada freskoa sentitu zuen airearen berotasunean; zazpi urte ez zuela halako ongizaterik sentitu, presondegi batetik eskapatzea zen, ataga lodiak bat-batean moztea eta libre sentitzea.

Baina haize fresko hura azkartzen hasi eta tenpesta izugarrian eraldatu zen, ez zituen ondorio guziak kontutan hartu: Iñakirekin, aitarik gabe... dirua faltan izango zuten... Bere burua jotzen hasi zen, beretako mespretxu handi batekin. Ondoren, etxetik atera zen zalu-zalua eta herriko mendirako norabidea hartu zuen.

Hala, heldua zen mendiaren tontorrera...

Bat-batean, nondik heldu zen jakiterik ez den haize bolada bat etorri zen. Ainarak ez zuen aukera pikutara joaten utzi, bi urrats aurrera egin eta airatu egin zen mundu hobego bati buruz: ainarak bezala.

Ainararen sakelakoaren pantailan hauxe irakur zitekeen: “*Ahozko mezu-igortzeak huts egin du*”.